Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

**234** zenbakia
2022 **apirila**

# Prest!

BERBETAN: **PAULA URIGOITIA eta LORE URIARTE** MATXINTXU-LARRAKO EUSKALTEGIAK

ERREPORTAJEA: **MENDE OSO BAT BORROKAN** BARKUA: **EUSKAL HEDABIDEEN BEHATEGIA**

TOKIKOM

30-231-232-233-234



## Sustatzailea

Herbaizu euskara elkartea

## Babesleak

Intxixu ikastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

Karrabun Talde Deustu

Deustuko Ikastola

Deustuko Jai Batzordea

Bihotz Alai Fondatxo Dantza Taldea

Deustuko Gazte Lokala

Elorri Bertso Eskola

eaj pnv deustu

S.D. Deusto

ehbildu

zirikatzen!

Deustuko Gazte Asanblada

Egunsentia Eskaut Taldea 1923tik

ernai Deustua

Pare Hautsi Mugak Kalean

Bilbao

## Laguntzaileak

*Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra*

Bizkaia foru aldundia diputación foral

BASKale

# Babestu Prest!

## urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

**234** zenbakia
2022ko apirila

# aurkibidea


| | | |
|---|---|---|
| Angel Prieto Fidalgo - Atxarte Salvador Navarro | **Iritzia** | 4 |
| Maider Barrenetxea Zalbidea | **Gureak kanpoan** | 5 |

**e erreportajea**
Mende oso bat borrokan

*Deustuko Erriberako garai bateko galletagileek 8 orduko lanaldia aldarrikatzeko grebara deitu zutenetik 100 urte igaro diren arren, oraindik badira tamalez, lanpostu askotan ematen diren gehiegikeriak.*

6

| | | |
|---|---|---|
| Intxixu ikastola | **Eskolak** | 10 |
| Fortuna ontziko marinelen zoria (1757) | **Behin batean** | 12 |
| Beste eredu bat posible da | **Artikulua** | 14 |

**b berbetan**
PAULA URIGOITIA eta LORE URIARTErekin

*"Lehen ikasleak beste asmo batekin etortzen ziren euskaltegira"*
*Matxintxu-Larrako AEK euskaltegietako irakasleak dira Paula Urigoitia (Otxandio, 1965) eta Lore Uriarte (Bermeo, 1995). Urigoitiak 10 urte inguru daramatza Matxintxun lanean, eta aldi berean euskaltegiko arduraduna ere bada. Uriarte berriz irailean heldu zen Deustura.*

16

| | | |
|---|---|---|
| José Gordón tailerrak (1924) | **Irudiak berbetan** | 21 |

**MUSIKA** Jonu kantautoreak lan berria kaleratu du, leihotik begira

**HEDABIDEAK** Euskal Hedabideen Behategia

**PINTXODROMOA** Txangurrozko causa

**KULTUR TXOTX** Antxon Agirre eta Ixone Arrizabalaga Arambarri

barkua bete herba

24


Prest!

**Argitaratzailea:**
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Nerea Cubillo Urkizu
**Erredakzioa:** Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
**Argazkiak:** Ecuador Etxea
**Publizitatea:** Nerea Cubillo Urkizu
**Diseinua:** BO5T
**Maketazioa:** Laura Freijo Iglesia
**Inprimategia:** Antza
**Ale kopurua:** 2.800
**Lege Gordailua:** BI-571-01

**Angel Prieto Fidalgo**
Ikerlaria

## *Zer gertatuko omen da Arangoitiko aparkalekuekin?*

Argi dago Deustuko barrutiko auzo batzuetan aparkalekuekin arazo bat dagoela. Eta hori gutxi balitz, aparkalekuen gabeziak auzo hauetan ondorio txarrak dakartza. San Inazion adibidez, auto asko aurkitu ditzakegu txarto aparkatuta. Honek kaleak deseroso bihurtzen ditu jende askorentzat, hala-nola, mugikortasun urriko pertsonentzat edo haurkotxea daramatzatenentzat. Baina, zergaitik gertatzen da hau auzo hauetan? Egindako ikerketa batek ondorioztatu du Ibarrekolandan eta San Inazio auzoetan aparkatzen duten autoen erdia baino gehiago kanpokoak direla. Bilbon lan egiten duten batzuk, inguruko herrietatik Bilbora erosketak egitera autoz datozen beste batzuk edo enpresako autoa non utzi ez daukatenek ere auzo hauetan autoa aparkatzen dute, TAO ez ordaintzeko. Baina, aurreikuspenen arabera, maiatzean TAO ezartzeak auzo horietan arazoa konponduko du. Sinestezina dirudien arren, Arangoitin egindako ikerketa baten arabera, bertan aparkatzen duten autoen %48a auzoz kanpokoak dira. Dirudienez, Arangoitira ere jende asko etortzen da autoa uztera. Datuen arabera, gauean Arangoitiko aparkalekuen okupazioa %100tik oso urbil dago. San Inazion TAO ezartzen denean ziurrenik asko Arangoitira igoko dira egunean zehar haien autoa aparkatzera. Arangoitiko aparkalekuari begira, nik uste egoera asko larrituko dela. Beste auzoetan gertatu den moduan, TAO eskatu beharko dugu.

**Atxarte Salvador Navarro**
Hego-haizearen zurrunbiloan

## *Bizitzaren prezioa*

Lagun bat etxe bila dabil, alokairuan. Ea Erriberan zerbait dagoen galdetu dit. Garai batean, duela urte batzuk, hemen oraindik aukera zegoen zerbait aurkitzeko, ez dut merkea esango, baina bai Deustun baino merkeagoa, behintzat.

Auzoak ez zeukan zerbitzurik, ez zeukan ezer; tabernak eta etxeak, besterik ez. Gainontzeko guztia Deustun zegoen (anbulategia, kiroldegia, eskolak, dendak, bankuak, farmaziak…). Horrek azaltzen zuen, neurri handi batean, hemen etxebizitza merkeagoa izatea. Gaur egun poteak udalak diruz lagundutako garito alternatiboetan ere har ditzakegu, an-tzerkira joan gaitezke eta bigarren eskuko azokan osteratxoa egin. Denon zergekin ordaindutako eliteko unibertsitate pribatuetan ikas dezakegu eta zirkua, eskalada edota skatea praktikatu. Orain gela bakarreko pisuak Erriberan ez dira 900 €ren bueltan daude. Baina anbulategiak, kiroldegiak, eskolek, dendek, bankuek eta farmaziek Deustun jarraitzen dute.

Urteak daramatzagu orubez eta makinez inguratuta, arratoiak dira nagusi eta espaloiak ere falta zaizkigu. Hori guztia nahikoa ez balitz, orain gazteek beste nonora joan behar dute euren habia egitera. Baina *"etorkizunean oso polita geratuko zaizue auzoa eta zuen etxeen balioa handitu egingo da"*. Beno, batetik, hori ikusteke dago, usteak erdi ustel izan ohi dira eta; bestetik, gure etxebizitzak dira, hemen bizi gara, auzokideentzat ez dira inbertsioak edo negozioak. Etorkizuna, hitz boteretsua, baina etorkizuna gaur da, *ta ezin leike hemen bizi.*

## Maider Barrenetxea Zalbidea

**Jatorria:** San Ignazio
**Helmuga:** Gandiol (Senegal)
**Ikasketak:** Ikus-entzunezkoak

**Testua:** Jone Gartzia

# “Pobrezia handia badago ere, ez dago miseriarik, haien artean elkar laguntzen dutelako”

*Tartanga eskolako ikus-entzunezko ikaslea da Maider Barrenetxea eta bi hileko laneko praktikak egiten ari da Gandiolen (Senegal). Bertako eskola batera joan da ikaskide eta irakasle batzuekin ezagutzak eta materiala partekatzera, asmoa, trukea egitea baita.*

**Zehazki, non zaude?**
Herria Gandiol deitzen da. Senegal iparraldean dago, San Luisetik 20 minutura, ia Mauritaniarekin muga egiten.

**Nolako herria da?**
Bada, estereotipoei jarraituz, Afrikarra: etxe baxuak, gehienez bi pisukoak, txikiak, multifamiliarrak... Hemen familiak denak elkarrekin bizi dira.

**Zu non bizi zara?**
Gu hona GKE batekin etorri ginen. Hahatay deitzen den proiektu kooperatiboa da, hemen aterpe artistiko moduko bat eraiki dute, eta gune kulturala ere badute, emakumeentzat etxe bat... Batez ere ikus entzunezkoak egiten dituzte, irrati bat dute. Gu eraikin artistikoan bizi gara. Hori da momentuz bizitzeko moduan eraikita dagoen gauza bakarra, baina ospitalea ere eraikitzen ari dira, adibidez.

**Zergatik joan zinen?**
Eskolako praktikak egitera. Hasieran truke bat izango zen, gu Senegalera joango ginen eta haiek Bilbora etorri, baina haiei ezezkoa eman zieten. Nik ez nekien, baina senegaldarrak ezin dira herrialdetik atera proiektu kooperatibo baterako ez bada, ezin dira, adibidez, Bilbora oporretan joan. Kontsulatuak ezezkoa ematen du beti horrelako kasuetan.

**Zer egiten duzue bertan?**
Hemen irratia dute baina tekniko bakarra dute, eta ikus entzunezkoak egiteko materiala grabatzeko soilik daukate. Guk zuzenekoak egiteko materiala ekarri dugu: errealizazio mahai bat, mikrofonoak eta ikastaro bat eman diegu. Helburua da gu joaterakoan haiek Youtuben zuzenekoak egiteko materiala eta ezagutza izatea.

**Bidaiatzeko aukera izan duzu?**
Gu praktiketan gaude, errespetuagatik astean zehar hemen egoten gara. Asteburu batean Dakarrera joan ginen, baina normalean herrian egoten gara.

**Zer da gehien gustatzen zaizuna?**
Giroa. Orain ramadana da eta apur bat zonbi daude, baina bestela beti egoten da giro ona. Etxean zaude eta ezagutzen ez duzun norbait sartzen da, denok bazkaltzen dugu elkarrekin...

**Eta gutxien?**
Ez dakit, Bilborekin alderatuta gehiegizko lasaitasuna dagoela a, baina hori ere ondo dago. Oso ortodoxoak dira, gauza batzuk ez dituzte ulertzen, baina hori normala da, haien errealitatea da.

**Nola deskribatuko zenuke bertako egoera?**
Dakidana da, ez dela asko, hemen egoera politikoa oso egonkorra dela beste herrialde batzuekin alderatuta. Bizi kalitatea ez da txarra eta Frantziaren boterea nabaritzen da. Hemen CFA frankoa erabiltzen da txanpon gisa, diru frantsesa. Eskolan oinarrizko hizkuntza frantsesa da, hezkuntza sistema frantsesa da.

**Kalean zein hizkuntza entzuten da?**
Hizkuntza propioa wolofa da, baina gutxitua da. Orain eskolan hasi dira irakasten, baina frantsesa da oinarrizkoa.

**Zein da orain arte izan duzun ikasketarik handiena?**
Bizikidetza eta errespetua, ez soilik gurekiko dutena, baizik eta haien artean dutena. Haiek esaten dute, gauza batzuk ez dituztela ulertzen baina errespetatzen dutela. Gainera, pobrezia handia badago ere, ez dago miseriarik, haien artean elkar laguntzen dutelako.

Artiacheko langileen 1922ko greba.

# MENDE OSO BAT BORROKAN

*Deustuko Erriberako garai bateko Artiacheko langileek 8 orduko lanaldia aldarrikatzeko grebara deitu zutenetik 100 urte igaro diren arren, oraindik badira tamalez, lanpostu askotan ematen diren gehiegikeriak.*

**Testua:** Nerea Cubillo Urkizu
**Irudiak:** Las Galleteras de Deusto liburua, Ecuador Etxea, Txema Luzuriaga.

Duela mende bateko galletagileei lekukoa hartuta, Orozkoko enpresa bereko langileak 150 eguneko borroka luzearen ostean lan hitzarmen duin bat aldarrikatzeko greba amaitutzat eman dute. Beraz, bost hilabeteren ostean, Orozkoko Artiacheko langileak akordio batera heldu dira enpresarekin. Unera arte [apirilak 22] jasotzen den aurreakordioaren arabera, 2024. urtera arte luzatuko den %12ko soldataren igoera adostu dute, 2025. urtean beste %2 igotzeko aukerarekin. Horrez gain, eguneko garraiorako 1,73 euroko laguntza jasoko dute eta enpresak proposatzen zituen antzinatasun eta "gauplusen" laguntzen murrizketak bertan behera geratu dira. Aurreakordio hau unera arte, UGT sindikatuak eta sindikatu independente batek sinatu dute, eta inguruko hainbat hedabideren arabera, espero da ESK sindikatuak ere sinatzea.

ELA eta LAB sindikatuek ere enpresa komitea osatzen dute. Hala eta guztiz ere, hauek ez dute aurreakordioaren aldeko bozkarik eman. Hauen hitzetan "oraindik zehaztu gabe egon arren, akordioak ez du lanaldi-murrizketarik aurreikusten, eta gutxienez 15 urte daramatza jaitsi gabe". Alabaina, positibotzat balioetsi dute kontratazio politikan, besteak beste, hobekuntzak egotea. Halaber, bi sindikatuek "grebalarien borroka" jarri dute balioan, hauen hitzetan "haien borrokari esker lortu baitute beren lanbaldintzak hobetzea".

Izan ere, 2019. urtetik eguneratu gabe dagoen hitzarmena hobetzearen alde borrokatu dira Artiacheko langileak ia bost hilabetez. Abendutik, egunero piketeak eta lau orduko lanuzteak antolatu dituzte goizeko, arratsaldeko zein

Artiacheko langileen 2022ko greba.

gauetako txandetan. Hilabete hauetan ez dira gutxi izan enpresak egindako eskaintzak, hala ere, Andres Larrinaga LABeko ordezkariaren arabera, proposamen guztiak "astakeria bat" izan dira. Grebari jarraipena emateko egindako mobilizazioei dagokionez, aldizkari honi bat azpimarratzea dagokio: martxoaren 1ean Deustuko Erriberako Artiach lantoki zaharrean egindakoa. Grebaren 100. egunean, goizeko 09:00etan Orozkoko lantegitik Deustuibarrako fabrika zaharrerantz abiatu ziren hainbat langile bizikletaz, izan ere, duela 100 urte Erriberako galletagileek 8 orduko lanaldia lortu zuten bi hilabeteko grebaren ostean.

## Mende oso bateko ibilbidea

Gaileta marka ezagunari izena emateaz gain, ezin dugu ahaztu Artiach XIX. mende amaierako familia burges baten abizena ere badela. Irinarekin eta ogiarekin zerikusia zuten negozioei lotuta egoteagatik Bilbon eta inguruetan Artiach familiak ospe handia lortu zuen XX. mendeko merkataritza eta industria sektorean. Irina eta ogia alde batera utzita, 1907. urteko abenduaren 10ean, Guimersindo de Artiachen hiru semeek "Galletas Artiach" izeneko enpresa jarri zuten martxan, hauen aitak hilabete batzuk lehenago Bilboko Garcia Salazar kalean gailetak produzitzeko tailerraren lekukoa

2022ko greba.


1983ko uholdeak.

hartzeko helburuarekin. Hasierako lokalak 84 metro koadro zituen eta egunean 50 gaileta kilo inguru produzitzen zituzten lau pertsonaren artean. Proiektuaren hazkunde garai betean, 1908. urtean Garcia Salazarreko lokala utzi eta Cantarranas eta Urazurrutia kaleen artean kokatuta zegoen tailer berri batera lekualdatu ziren lan tresna eraginkorragoekin. Langile eta produkzio kopurua ere nabarmen hasi zen 1908. urtetik aurrera. 1920. urtean Cantarranas kaleko tailerrean izandako sute baten eraginez, lantokia Deustuko Erriberako 58. zenbakira lekualdatu zuten. Urtebete gailetarik produzitu gabe egon eta gero, 1921eko azaroan hasi ziren gutxika gailetak eta bizkotxoak berriz esportatzen 1922. urtean ekoizpen guztia abiatzea lortu zuten arte. Lantokiaren ekoizpenik handiena Deustuko Erriberara mugitzean eman zen. Artiach familia fabrikaren jabe izan zen 1983. urtera arte, izan ere, uholdeen ondoren, Nabiscoren jabe izatera igaro zen.

### 1917 eta 1922 urteetako grebak

Lan baldintzei dagokionez ohikoa zen ekoizpena aurrera ateratzeko langileei 7 eguneko eta 11 orduko lanaldiak ezartzea. Horrekin batera, higiene-baldintzak penagarriak ziren eta pezeta bana ordaintzen zieten egun osoko lanaldiagatik. 1917. urtean eraikuntzako beharginen grebak, beste hainbat sektoretan ere lanuzteak egotea ondorioztatu zuen, gaileta fabrikan kasu. Urte hartako galletagileen aldarrikapenek argi eta garbi erakutsi zuten langileek pairatzen zituzten gehiegikeriak. Besteak beste hauek dira egindako aldarrikapenak: “8 orduko lanaldiak une oro, orduko soldatak pezeta bat igotzea, jaiegunetan lanera joaten ez diren langileak ez kaleratzea eta egin beharrekoa betetzen ez dutela aitzakiatzat hartuta, langileei ezarri ohi zaizkien isunak desagertzea”. Gatazka konpondu bitartean fabrika itxi zuten.

Galletagileak greban.

Euskararen Etxea
Zatoz!
www.euskararenetxea.eus
Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia.
Tel.: 94 402 80 81
E-posta: info@euskararenetxea.eus
Metroa: San Ignazio > Lekeitio Irteera.

1922. urtean hainbat greba egin zituzten garai hartan, nagusiki zortzi orduko lanaldia aldarrikatzeko helburuarekin. Las Galleteras de Deusto liburuan azaltzen den bezala, urtarrilean "Artiach jaunak 9 orduko lanaldiak ezarriko zituela adierazi zuen, eta ondorioz, aparteko orduak aurreztuko zituela". Urtarrilaren 23an sei eguneko lanuztea abiatu zuten Artiach jaunak 8 orduko lanaldia berrezarri zuen arte.

### Emakumeen fabrika

Garai honetan, emakumeen jarduera nabarmena da gaileten ekoizpenean zein industrian orokorrean. Las galleteras de Deusto liburuan irakur daitekeenaren arabera, emakumeek industria jakin batzuetan lan egiten zuten enpresen jabeek "kualifikaziorik gabeko eskulan merkeagoa bilatzen zutelako". Garai hartako emakume gehienak ehungintza sektorean lan egin arren, Bizkaiko meategietan eta ikaztegietan ere aurki zitezkeen, zirgarien lana ahaztu gabe. Aipatutako liburuan ageri diren datuak argiak dira: 1923. urtean Deustuko Erriberako fabrikan lan egiten zuten 77 pertsonen artean 55 emakumeak ziren. 1941ean berriz, 600 langileetatik, emakumeek plantillaren bi heren betetzen zituzten. Gaur egungo daturik ez dugun arren, Galletagileen liburua argitaratu zenean [2007] Orozkon lan egiten zuten 250 langileen %75a emakumeak ziren.

Galletagileak lanean.

# SAGUZARRAK KAKA-SALTSAN

*Eskola gauza asko da, batzuetan merkatua, beste batzuetan dantzatoki edo antzokia eta oraingoan, Intxixu ikastolan hilean birritan zenbait gela irrati-estudio bilakatzen dira, non podcastak grabatu egiten ditugun.*

**Testua eta argazkiak:** Intxixu Ikastola

Ekimen honetan, Lehen Hezkuntzako maila guztiek txandaka hartzen dute parte edukiak praktikatuz eta buruz ikasiz, baina nagusitxoen kasuan bada ere bat-batekotasunerako tartea, irratsaioak bizitasuna irabaz dezan.

*Anchor on line* plataforma erabiltzen dugu horretarako eta irakasleek aldez aurretik planifikatzen dute saioaren nondik norakoa: lehiaketak, asmakizunak, txisteak, bitxikeriak, agenda, baina baita ere egutegiak ekarriko duenaren ingurukoak, Aste Santuan, beste herrialde bateko ohituraren bat ezagutaraziz edo amaren eguna hurbil daukagunean, haiei zuzendutako bertso edo kantaren bat eskainiz. Grabatu ondoren, arduradunak gonbitea egiten die korreoz gainontzeko geletako ikasle zein irakasleei egun eta ordu berean entzuteko. Halaber, lortutako podcasta ikastolako webgunean txertatzen dugu guraso zein ikasleek etxetik ere entzun ahal izateko. Gaur 2.A mailakoen grabaketan sartu gara kuxkuxeatzeko asmoz. Gidoi ederra prestatu dute gelan, eta asteburuan jo eta ke ibili dira buruz ikasten. Egun batzuetan praktikatu beharko dute eta asteazkenean, grabatu. Haiek badakite gero ikastolako lagunek eta irakasleek entzungo dutela eta, beraz, ondo baino hobeto egin nahi dute.

Liherrek eta Camilek kontatu dute Pokemon marrazki bizidunen 25. urteurrena betetzen dela apirilaren 1ean eta, beraz, ondotxo jakin dute 1997. urtean agertu zirela telebistan estreinakoz.

Ilargik, Liherrek eta Aiorak Korrika Martxoaren 31n Amurrion hasi zela kontatu dute eta Donostian amaituko dela. Ikastolan apirilaren 6an ospatuko dugu eta mezu erakargarria dakar: HITZEKIN! Bestetik, Neguak, Ikerrek eta Alaitzek ikastolan

Korrika.

Banderas mendia.

Pokemon.



Menua.


Liburuaren eguna.

Liburuaren eguneko ospakizunetan sartuta gaudela gogoratu dute eta hilaren 5ean, ipuin irakurketa egingo dugula maila guztietan, irakasleak ipuin-kontalari bihurtuta.

Nicolasek esan digu apirilaren 1ean txantxen eguna dela eta Peiok hauxe kontatu du:

Andereñoak Jaimitori galdetzen dio:
-Zenbat hezur dauzka gure gorputzak?
-207, andereño- Jaimitok
-Baina Jaimito! Ez nizun esan atzo 206 ditugula?
-Bai, andereño- baina gaur oliba hezur bat irentsi dut

Txisteak guztion irribarrea piztu du; askotan entzuna izan arren, dibertigarria da eta.
Jarraian, Izarok txango polit bat proposatu digu: Banderas mendiko igoera. Ekaik gogoratu du igotzen erraza dela eta tontorretik bista ikusgarriak dituela, zerua oskarbi badago. Julianek datu interesgarri bat gehitu du segituan: mendi horren benetako izena Elorriaga da, baina garai batean itsasontziak Nerbioi itsasadarretik sartzen eta irteten zirela adierazteko, mendi horretan banderak kokatzen ziren eta hortik datorkio famatu egin dion ezizena.

Oierrek Aste Santuko eguraldia zein izango den jakiteko, gaur egun sateliteak oso garrantzitsuak direla aipatu du Saioarekin bat eginez eta Noajek gogoratu digu apirilaren 1ean baina duela 62 urte, Estatu Batuetatik TIROS satelitea jaurti zutela espaziora eta hark bidalitako hodeien argazkiak erabili zirela eguraldia iragartzeko lehendabizikoz. Hauek ume jakintsuak! Etorkizuneko astronautak ote? Irratsaioaren grabaketa amaitzear dago eta Unaik gaurko menua eskaini digu:

Saguzarrak kaka-saltsan, behi-puzkerrak belarrekin eta zizare-tarta barraskilo babarekin. Puaj!

Oierrek gogorarazi digu nazioarteko txantxen eguna dela eta barre algaraka amaitu dugu denok. Eta zuek?

# FORTUNA ONTZIKO MARINELEN ZORIA (1757)

*Itsasgizonek osatu zuten kapitalismoaren mendeko lehenengo langileria. Lan-indarra saltzera behartuta zeuden, soldata baten truke. Deustuko eta Bilboko marinel batzuen gorabeherak datoz jarraian, Fortuna ontzian itsasoratuak Atlantikoaren ertzetan kapitalismoa ezartzen hasi zenean.*

**Testua:** Hektor Ortega

Cadizko portua 1770. urte aldera.

Inoiz aipatu dugu txoko honetan Marcus Rediker eta Peter Linebaughen *La hidra de la revolución* liburu zoragarria. Historia saiakera horretan, XVII eta XVIII. mendeetan Atlantikoaren ertz bietan eta uretan osatu zen proletalgoaren berri eman zuten, aurretik inork ikusi ez zuen langileria. Horretan ezaugarrienak, beharbada, marinelak ziren, lan-indarra soldata baten truke saltzera behartuak. Mendeak aurrera egin ahala ontzietan gero eta diziplina gogorragoa ezarri zieten, geroagoko fabriketako aurrekari.

Euskal Herria ere Atlantikoaren hegian dagoenez eta gure portuak merkataritza eta harreman sare trinko horretako partaide aktiboak izan ziren neurrian, euskaldunak ere murgilduta zebiltzan. Portugalete eta Olabeagako portuetara, kasu, Virginia, Frantzia, Ingalaterra, Holanda, Portugal eta beste leku askotako ontziak heltzen ziren, eta gureak ere hara joaten ziren.

Adibidez, Bilboko Fortuna ontzia 1756ko apirilean. Orduko hartan Thomas Morphy irlandarrak eskifaia kontratatu zuen bere ontzirako. Jose Mentxaka jarri zuen kapitain, Juan Antonio Dañobeitia kontramaisu, eta Manuel Antonio Karrera, Francisco Uribarri, Jose Barañano, Bautista Uriarte eta Frantzisko Uriburu marinel. Ez dakigu eskifaia osoa ote zen, baina agirietan ez zuten beste inor aitatu. Itsasgizon guztiak, Bilbo eta Deustukoak.

Kontratuan soldatak zehaztu ziren (hilean 13 peso kapitainarentzat eta 9 peso marinelentzat), baita ontziak egin beharreko bidaia ere: Portugaletetik Bordelera eta bertatik Dublinera. Behin Irlandako hiriburuan, bidaia luzatzea adostu ezean, eskifaia Bilbora itzuliko zen. Eta zehaztapen garrantzitsua: soldatak ordaindu behar zizkioten ontziratuko ziren egunetik Bilbora itzuliko ziren egunera arte.

Fortunak haizea alde eduki ei zuen eta onik egin zuen Bordele eta Dublinerainoko bidea. Ez dakigu zer merkantzia zeraman. Kontua da behin Dublinen, ontziko jabeek, ordura arte egindakoa ordaindu beharrean, bidaia Cadizeraino luzatzeko proposatu ziotela eskifaiari. Gizonetako gehienek onartu zuten, baina denek ez, Frantzisko Uriburu Dublindik Bilbora etorri zen eta. Fortuna arazo barik heldu zen Cadizera. Han ere ontzian jarraitzeko proposamena egin zieten gizonei, itxura baten Mediterraneo aldera, baina honek muzin egin zioten eskaintzari, "por temor del moro turco". Orduan ordaindu zizkioten soldatak.

1757ko martxoan Cadizen lehorreratu ziren gizonak (Dañobeitia, Barañano eta Uriarte) oinez itzuli ziren Bilbo eta Deustura, ez zeukatelako zalgurdiak ordaintzeko lain. Pentsa liteke zelako ibilbide luze eta latza egingo zuten. Behin Bizkaian, kontratuan esandakoari jarraituz, eskabidea aurkeztu zuten Cadiztik etxerainoko denborari (hilabetea) zegokion soldata eta bidaian egindako gastuak (jatekoak, batez ere) eskatzeko. Eta hor etorri zen ezustea.

**Hura ez zen Fortuna**

Marinelek zegokien auzitegian aurkeztu zuten eskabidea, Bilboko Kontsulatuaren auzitegian alegia. Eta dirua Domingo Errekakoetxea merkatariari eskatu zioten, berak kontratatu zituelakoan, Thomas Morphyrekin batera. Auzitegiak ere horrela ulertu zuen eta, horren ondorioz, luze gabe zorra ordaintzeko agindu zion Errekakoetxeari. Baina honek ezetz. Eta bere ezetza argudiatzeko, isilpeko jokaldia erakutsi behar izan zuen.

Honela azaldu zuen idatziz: "auzi honen egia da Morphy ontzi baten kapitain abiatu zela Dublindik Bordelera, bere karga eta eskifaiarekin". Baina orduan zabaldu ziren Frantzia eta Bretainia Handiaren arteko gerra zetorreneko zurrumurruak (orduan hasi zen Zazpi Urteko Gerra, 1756-1763) eta "Frantziako kortsarioen beldur Bilbon porturatu zen". Morphyk Bordele eta Dublingo Connortarren gutuna zekarren, zer edozer behar izanez gero, Errekakoetxeari eskatzeko. Kinka hartan, Errekakoetxeak gomendio hau eman zion Morphyri: segurtatu zezala bere burua, ontzia eta karga eta horretarako har zezala Espainiako bandera eta eskifaia". Eta horrela egin zuen: ontziari izen berria eman zion (Fortuna), eta eskifaiarako Mentxaka kapitaina eta enparauak kontratatu zituen. Eta esaten zuenaren erakusgarri, kontratuaren atal batzuk nabarmendu zituen Errekakoetxeak. Izan ere, lehenengo atalean bertan argi utzi zuten erabakiak Morphyk hartu behar zituela eta Mentxakak onartu beharko zituela, eta beste atal batean zehaztu zuten Mentxakak pilotuari edo are marinelei dagozkien lanak egin beharko zituela, hala behar izanez gero. "Mentxaka ez zen benetako kapitaina, Morphy baino", argitu zuen Errekakoetxeak.

Beraz, benetako kontratatzailea ez zen izan Errekakoetxea, Bordeleko eta Dublingo Connortarrak baino. Horrek asko zailtzen zien marinelei zorraren kobraketa. Auzitegiak, azkenean, arrazoia eman zion Errekakoetxeari eta itsasgizonentzat aterabide hau baino ez zuen aurkitu: Errekakoetxeari eskatzea "karitatez nahiko balu Morphi eta Connortarren aurrean agertu, ordaindu zezaten falta zena eta horrela marinelei auzi luzea saihestu..."

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

# NAIA ZURIARRAIN DEUSTUARRARI 3 URTE ETA ERDIKO ESPETXE ZIGORRA EZARRI DIO AUZITEGI NAZIONALAK

*Arantza Zuluetari zazpi urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra jarri diote, Jon Enparantzari lau urtekoa eta Iker Sarriegiri hiru urte eta egun batekoa. Saioa Agirre, Nerea Redondo eta Julen Zelarain absolbitu dituzte.*

**Testua:** PREST!

Euskal preso politikoen abokatuak edo preso horien elkartasun sareetan ibilitako kideak dira denak. Zuriarraini, Enparantzari eta Sarriegiri, "erakunde terroristako kide" izatea leporatzen diete, Zuluetaren kasuan, zigorra haratago doa, "armak eta lehergaiak edukitzea" ere egotzi baitiote.

Dagoeneko 12 urte igaro dira Grande Marlaska epailearen agindupean, "ETA eta presoen arteko lotura lana egitea" leporatuta, Guardia Zibilak hainbat pertsona atxilotu zituenetik. Atxiloaldian haietako asko torturatu egin zituzten eta tortura horiek sententzian egiaztatu ez arren, baieztatuak izan dira Istanbul Protokoloaren arabera.

Naia Zuriarrainek, adibidez, atxiloaldian hainbat tratu txar jaso zituela adierazi zuen 2021eko uztailaren 12an izandako epaiketan eta hala jaso du Berria egunkariak ere: "galdeketetako batean, burua eta bularrak ukitzen hasi ziren, mehatxatzen. Gogoan dut zutik egotera behartzen nindutela, eta ni eseri egiten nintzela. Guardia zibil asko nituen atzean, iruzkin sexistak eginez, nitaz barre egiten".

Halaber, ez dira gutxi prozesuak jaso dituen kritikak "guztiz leku kanpo baitagoelako". Foro Sozialak adibidez, 13/13 auziko epaiketak bizikidetza demokratikoan "eragin negatiboa" izan zezakeela ohartarazi zuen. EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU alderdiek bere aldetik, sumarioa "denboraz eta lekuz kanpo" dagoela adierazi zuten eta aldi berean, pertsona jakin batzuei aplikatzen zaien "salbuespenezko legediaren" aurka egin zuten. Azkenik, Demokraziaren eta Giza Eskubideen Aldeko Abokatuen Europako Elkarteak prozesua bertan behera uzteko eskatu du behin baino gehiagotan, "prozeduran askotariko irregularitateak eman direlako, eta berme judizialak urratu" direla argudiatuz.

# BESTE EREDU BAT POSIBLE DA

*"Betiko" kontsumo ereduei alternatibak proposatzeko asmoz, Alternatiben Irla herri ekimena antolatu dute maiatzaren 15ean Deustuko Erriberan: "Kapitalismotik atera daitekeela erakustera gatoz".*

**Testua:** PREST!

Zorrotzaurre plana Deustuko Erribera errotik aldatzera datorrela ukaezina da. "Interes ekonomiko ezberdinak" dituen eraldaketaren aurrean, auzoan kontraeredu bat planteatzea helburu duen jardunaldi bat antolatu dute Bizinahi Auzo Guneko eta Bekoerri Kultur elkarteko kideek.

Ekimena martxan jarri baino lehen, eragile bakoitzak auzoan duen kontsumoaren diagnostiko bat egin dute. Honi esker, jakina da auzoko etxebizitzen %10a Goienerreko bazkidea dela, %4ak Laboren erosketa egiten duela edota %3ak Izarkomen zerbitzuak erabiltzen dituela. Hemendik eta urtebetera kopuru horiek "zertxobait handitzea" ezarri dute erronka moduan.

Goizeko 11:00etan abiatuko dute egitaraua, besteak beste, Goiener, Izarkom, Olatukoop edota Labore bezalako proiektuen arteko mahainguruarekin. Solasaldiaren ostean, alternatiben azokak proiektuak hobeto ezagutzeko, hauetan bazkidetzeko, zein mahainguruan parte hartu ez duten beste eragile batzuk ezagutzeko aukera emango du. Kutsu ludikoa ere eman nahi izan diotenez, eguerdian trikipoteo pirata egingo dute auzoko tabernetan, hala eta guztiz ere, antolakuntzako Urtzik azaldutakoaren arabera, poteoa era ezberdin batean planteatzen da, bertoko produktuen kontsumoa sustatzeko asmoa baitute: "modu batera zein bestera auzoko tabernetan bertoko produktuak kontsumitzeko aukera dagoela erakutsi nahi dugu. Bertoko ardoa, garagardoa, zukuak zein mostoa egongo dira salgai besteak beste". 15:00etan Labore eta Goilurra proiektuetako jakiekin bazkari etikoa egingo dute eta 17:00etan KM0 kantautoreek egun osoko egitarauari amaiera emango diote.

# berbetan

PAULA URIGOITIA eta LORE URIARTErekin

Matxintxu-Larrako euskaltegiak

## “Lehen ikasleak beste asmo

*Matxintxu-Larrako AEK euskaltegietako irakasleak dira Paula Urigoitia (Otxandio, 1965) eta Lore Uriarte (Bermeo, 1995). Urigoitiak 10 urte inguru daramatza Deustun eskolak ematen, eta aldi berean, euskaltegiko arduraduna ere bada. Uriarte berriz, irailean heldu zen Deustura.*

**Testua:** Nerea Cubillo Urkizu
**Argazkiak:** Ecuador Etxea

# *batekin etortzen ziren euskaltegira”*

**Nola hasi zineten AEKn eskolak ematen?**
Paula: 1986an Otxandioko neguko barnetegian hasi nintzen. Aldi berean, Berrizen ere gau eskolak ematen nituen baina ikasle kopurua gutxitzen hasi zenean AEKk Tolosara joateko eskatu zidan. Tolosan neguko barnetegian hasi nintzen eta bukatzean esan zidaten Euskaltegia martxan jartzeko asmoa zeukatela. Bertan egon nintzen 1992. urtean Bilbora etorri nintzen arte. Hasieran Lizardin ibili nintzen, ostean Aizu aldizkarian eta azkenik Deustura heldu nintzen duela 10 bat ikasturte.

Lore: Pasa den ikasturtean Zorrotzako euskaltegian ordezkapen bat egiten ibili nintzen. Bertan ikasturtea bukatu nuen eta urte honetarako deitu zidatenean Deustun eskolak emateko aukera eman zidaten.

**Zenbat irakasle eta ikasle zaudete gaur egun Matxintxu Larrako euskaltegietan?**
P: Bi euskaltegiak kontuan hartuta, guztira 9 irakasle eta 275 ikasle inguru gara gaur egun. Seguru nago hasieran Matxintxu Larrakok 14 bat irakasle izan zituela eta orain baino ikasle gehiago ere bai. D ereduak eragin handia izan du euskaltegietan.

**Eskoletara datozen ikasleak tituluaren bila datoz ala haratago doaz?**
L: B2 mailako irakaslea naiz eta nabaritzen da asko lanpostu publikoetan eskatzen duten profila lortzera datozela. Gero badira gutxi batzuk hizkuntza ikasteagatik soilik datozenak eta batzuetan bi profil horiek eskoletan elkartzen direnean zaila izaten da klasea bera bideratzea, baina lortzen dugu.

**Eta beste mailetan?**
P: Hauetan ikasleen profila guztiz ezberdina da. Kanpotik etorritako jendea da eta horien artean ere asmoak ezberdinak izaten dira. Badira gaztelania ondo dakitenak eta umeei eskolako lanekin laguntzeko ikastera datozenak, edota maitasunak ekarritakoak.

**Aldatu da hasiera bateko ikasleen konpromisoa?**
P: Errotik, abiapuntua beste bat zelako. Hasiera batean “kanpoan” beste egoera bat zegoen. Denok argi geneukan nahi genuen horrek aurrera egin zezan guk ere lan egin behar genuela. Ikasleak bestelako asmo ezberdin batekin hurbiltzen ziren: herrigintzan jardutea, euskararen alde egitea, egon behar zuen leku guztietara eramatea…

**Nola ikusten duzue Deustualdeko egoera euskararen erabilerari dagokionez?**
L: Deustun badira gune batzuk euskaraz gehiago hitz egiten dena. Hala ere, uste dut oso eroso bizi den jendea badagoela, euskara jakin bai baina hitz egitera behartuta sentitzen ez dena.

**“Denok argi geneukan nahi genuen horrek aurrera egin zezan lan egin behar genuela”**

# berbetan

PAULA URIGOITIA eta LORE URIARTErekin

## ▷▷ SAKONEAN

## *“AEKra eskolak ematera soilik datorrena oker dabil”*

**Uste duzue AEKko irakasle izateak “militante” kutsua duela?**

L: Hizkuntza bat irakasten egiten dugu lan, eta gu ere hizkuntza hori garen aldetik konpromiso bat daukagula uste dut, gure nortasunaren parte ere badelako. Beste lan batzuekin alderatuta nik sentitzen dut honetan ez ordu gehiago sartu behar direnik, baizik eta egiten dudan guztiak lagundu dezakeela hau guztia aurrera eramaten.

P: Dudarik gabe. Irakasle berriei harrera egiten diegunean zer eskubide eta zer betebehar dituen azaldu behar izaten diegu. Badira lan batzuk egin behar direnak eta soldatan ere sartuko zaizkionak, nahiz eta horrela idatzita ez egon. Korrika baldin badator lan egin beharko da, gogotik gainera. AEKra soilik eskolak ematera datorrena oker dabil.

**Zer da AEKk eman dizuen onena?**

P: Gustuko zerbaitetan lan egin nezakeela ikusteko aukera eman zidan. Euskal Herri mailako proiektu batean parte hartzeko, emakume bezala ahalduntzeko, genero artean berdintasunean lan egiteko aukera ere eman dit.

L: Beste lan egiteko modu bat ezagutu dut AEKn. Eroso nabil lanean eta betidanik maite izan dudan zerbaitetatik, hizkuntzatik, zerbait atera eta beste batzuei ematea ikaragarria iruditzen zait.

P: Aste barruan dezente euskaldunagoa da ikasle asko dagoelako, eta esango dut, ikasle gipuzkoar asko. Hala ere, Deustun adibidez San Inazion baino euskara gehiago entzuten da, Deustun San Inazion ikusten ez den ordezko belaunaldia dagoelako agian.

**Korrikaren 22. edizioa igaro berri da. Zer da korrika zuentzat?**

L: Nik orain arte Korrika alde batetik ezagutu dut eta aurten beste alde bat ezagutzea egokitu zait. Niretzat Korrika kolektibotasun hori sentitzea da, nortasuna aldarrikatzea, eta oso handia den zerbaiten parte sentitzea ere bai.

P: Askotan pentsatu dut tximista moduko zerbait dela. Baina nik ez dakit tximista batek zer emozio transmititzen duen. Badakit argitasuna eta indarra duela, berehalakoa dela eta aztarna uzten duela. Herriari lotzen nauen barne sentsazioa da.

**Eta AEKrentzat?**

P: AEK sortu zenean egoera ekonomikoa oso txarra zen eta beraz, ger-

tatzen ari zen guztiari erantzun ahal izateko ideia mamitu zutenek Korrikarekin eman zuten. Gaur egun, ordea, euskarak duen ekimenik garrantzitsuena da, Euskal Herriko mugetatik kanpo ere entzuten dena. Tamalez garrantzitsuena eta beharrezkoena ere bilakatu da, Euskal Herri mailako proiektuari sostengua ematen dion ekimena baita. Korrikarik gabe guk ezingo genuke aurrera egin.

**AEKk egindako balorazioan honako hau irakur daiteke: "ikusi dugu hau izan dela maitatuena, kilometroz kilometro ondoen zaindu dena". Zuek ere horrela sentitu duzue?**

L: Pandemiak eragin duenaren ostean, jendea oso gogotsu egon da. Pasa den urtekoa ezin izan zen egin eta orduan jendeak gogo gehiagorekin itxaron du aurtengoa.

P: Gainera, ikusi da pandemiak euskararen alde beharrean euskararen kontra egin duela, eta euskarak nolabaiteko bultzada behar zuela egoera irauteko. Askok oso presente izan dute hizkuntzaren aldeko babesa eskatzeko unea zela, euskararekiko inplikazioa aldarrikatzekoa, alegia.

**Korrika batzordea antolatu da Deustualdean. Nola joan da?**

P: Euskarak beti izaten ditu bere aldeko batzuk eta eskertzekoa da bihotzez. Deialdia egin ostean 6 bat lagun elkartu ginen. Gainera, korrikari buelta emateko prest agertu ziren beste hainbat eragileren eta elkarteren laguntza ere jaso dugu. Oso ondo joan da orokorrean. Taldeek antolatzen dituzten ekintzak korrikari eskaintzeko planteamendua egin genuen, beraiek ere aletxo hori jar zezaten eta esan behar dut prestutasun osoa egon dela.

**HITZEKIN denok euskara doan dinamika aurkeztu du AEKk. Erakunde publikoei egindako interpelazio bat bezala uler daiteke?**

Une honetan erosoa da lekukoa hartu, dirua eman eta "gu ere konforme gaude" esatea. Baina hori zerbaitetan bihurtu behar da. Herri egiten gaituena hizkuntza dela esaten dugu, baina gobernuak zerbait egin beharko du hori horrela izan dadin. Ez lirateke dirulaguntzak kontu akademikoari lotu behar, euskaldun izateari baizik. Korrikaren aurreko edizioaren leloa KLIKA izan zen, klika egin euskararen alde, herriaren alde. Aurtengoa haratago doa, hitzak ez ezik, ekintzak ere behar direla aldarrikatzen duelako.

**Eusko Jaurlaritzak emaitza akademikoen arabera laguntzak ematen ditu euskara ikasteagatik. Zer deritzozue?**

L: Euskara mailak aurrera egin ahala, zailtasunak ere handitzen doaz, eskaini beharreko ordu kopuruak ere handitzen dira eta ulertu behar da ikasle guztiek ez dutela ikasteko erritmo berdina. Ikasturte bakarrean B1 edo B2 lortzea oso zaila da eta horren aurkako lasterketa bat egiten ari dira dirulaguntza hori lortu ahal izateko.

P: Karpeta besapean izateagatik laguntzak beharrean logikoena litzateke euskara ikastearren soilik ikasleak laguntzea. Egia da hasiera batean ez zela beste modurik izan. Euskalgintzak euskara ikasteko diruz laguntzeko aldarrikapena egin zuen, eta gobernuak onartu arren, baldintzak haiek jarri zituzten. Nahiz eta lanean fina izan, jendearen esfortzua ere kontuan hartu beharko litzateke.

**"Une honetan erosoa da lekukoa hartu dirua eman eta konforme zaudela esatea, baina ekintzak behar dira"**

LANAK

## Done Petri plazako lanak hilabete honetan amaituko dituzte

2021eko otsailean hasi ziren plaza berriztatzeko lanak eta hilabete amaieran dira amaitzekoak. Proiektuak guztira hiru milioi eurotik gorako inbertsioa izan du. Bilboko Udalaren arabera, "obren helburua etorbidearen bi aldeetako plazaren irakurketa bateratua egitea da", hala eta guztiz ere, auzoa erdibitzen duen errepideak aldaketa gutxi jasan ditu, noranzko bakoitzetik errei bakarra kendu baita. Oinezkoentzako espaloia zabalagoa da orain. Frontoiari dagokionez, horma eraitsi eta sarbide bakarra duen beste bat sortu dute. Frontoiaren aurreko markesina handitu egin dute. Aldaketarik nabarmenena Done Petri plazako kioskoa eraistea izan da, horren ordez, pergola estali bat jarri dute.



LANAK

## Garabia pabilloiko lanak gelditu dituzte zimendu faltagatik

Joan den azaroan hasi ziren Deustuko Erriberako Garabiako pabiloia birgaitzeko lanak. Pabiloi 6 elkartearen instalazioetako berrikuntzak bi fasetan proiektatu dira, eta asmoa konpainiaren bi pabiloiak aldi berean ez eraberritzea zen, antzerkijarduera eten behar ez izateko. Hasiera batean, obrak sei hilabeteren buruan amaitzea aurreikusten zen, baina aurreko pabilioietako lehenaren azpiegitura eraitsi ondoren, langileek ikusi dute lursailean ez dagoela eraikuntza berriari eusteko behar besteko zimendurik. Ezbehar horren ondorioz, obrak aldi baterako gelditu dira eta beste hiru hilabetez luzatu dira, Asier Abaunza Obretako zinegotziak baieztatu duenez. Gainera, Udalak 400.000 euroko gastu gehigarriari aurre egin beharko dio zimenduen oinarri berri bat eraikitzeko.

JAIAK

## Badatoz Elorrietako jaiak!

Apirilaren 28tik maiatzaren 1era bitartean ospatuko dituzte aurten jaiak Elorrietan. Txupinazoa ostiralean arratsaldeko 18:00etan izango da, eta horren ostean ume zein nagusientzako hainbat ekintza izango dira plazan: zirkuitu puzgarria, umeentzako tailerrak, eta ipuin kontalaria, besteak beste. Arratsaldeko 20:30ean igel txapelketa egingo dute Argi tabernan eta ostiraleko egitarauari amaiera emateko Cowboy taldearen kontzertua izango da plazan. Larunbata izango da jaietako egun nagusia. Goizeko hamarretan Bulebarrean auto klasikoen VII. kontzentrazioa izango da, eguerdian paella txapelketa eta arratsaldean haurrentzako magia ikuskizuna beste hainbat ekintzen artean. Arratsaldeko 19:30ean mozorro lehiaketa antolatu dute, erromeriarekin batera. Maiatzaren 1ean tortilla txapelketa, euskal dantzak Bihotz Alai taldearen eskutik, XI. tiragoma txapelketa eta herri kirolak antolatu dituzte. Jai amaierako traka gaueko 21:00etan izango da.

JAIAK

## Arangoitiko euskal jaia maiatzaren lehengo astean ospatuko dute

Apirilaren 30etik maiatzaren 8ra bitartean, ekitaldiz beteriko egunak biziko dituzte arangoitiarrek. Protagonista nagusiak musika eta dantza izango dira, baina txikienentzako ipuin kontalariak, tailerrak eta antzerkia ere. Euskal jaia apirilaren 30ean hasiko da, larunbata, eskolan egingo diren eskubaloi eta futbito partidekin. Maiatzaren 4, 5 eta 6an hainbat ekintza antolatu dituzte arratsaldez, eta 7an berriz, egun osoko egitaraua izango dute aurretik arangoitiarrek. Euskal Jaiari amaiera emateko, igandean 11:30ean Deustuko Gaitarien kalejira izango da auzoan zehar. Ostean, eskolan, txalaparta ikuskizuna, bertso saioa eta herri kirolak egongo dira. Amaitzean sarien banaketari ekingo diote.

**Urtea:** 1924

Txema Luzuriaga

# *José Gordón tailerrak*

Irudian José Gordón tailerrak ageri dira. Gordón Deustuko Elizateko alkatea izan zen 1920tik 1923ra. Galdaragintza tailer bat zuen eta itsasontziren bat ere eraiki zuen. Jose Maria Taibo Guisasolak hartu zuen ondoren aipatutako tailerra. Taiboren enpresak orubea okupatu aurretik, Dionisia izeneko ontzi bat eraiki zen bertako zelaian, eta bitxi samarra zenez, arreta handia piztu zuen itsasoko gizonen artean, eraikitzaileek zituzten baliabide apurrekin ezin izan baitzuten besterik egin.

**Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!**


Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
☎656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

## Hemendik aurrera ez da derrigorrezkoa izango musukoa leku itxi gehienetan erabiltzea. Zer deritzozu?

**Jon Ander San Inazio**

Berri pozgarria dela uste dut. Dena den, gero eta gehiago antzeman dut eskoletan haurrek ez dituztela kendu nahi euren buruak itsusi ikusten dituztelako, eta horrek arduratzen nau.

**Oihane Txurdinaga**

Ondo iruditzen zait edukierak kontrolatzen badira.

**Nagore Deustu**

Ondo deritzot. Hala ere uste dut oraindik leku batzuetan derrigorrezkoa izaten jarraitu behar duela, osasun zentroetan adibidez.

**Naroa Txurdinaga**

Erabaki hori hartzeko ordua zela uste dut. Leku zehatz batzuetan oraindik derrigorrezkoa izatea ondo deritzot.

**Gaizka Natxitua**

Ondo. Bazen garaia musukoa aurpegitik kentzeko.

**Imanol Trapaga**

Oso ondo deritzot. Lanean batez ere eskertzen da musukorik ez erabiltzea.

**>> MUSIKA**

# JONU KANTAUTOREAK LAN BERRIA KALERATU DU, LEIHOTIK BEGIRA

*Bi urte igaro dira birus batek ia bi hilabetez etxean egotera behartu gintuenetik. Denbora tarte horretan etxeko leihotik ikusitakoak bildu ditu Jonu Kantautoreak kaleratutako azken lanean.*

**Testua:** PREST! **Argazkia:** Iker Villa

Pandemian zehar ondu zuen Jon Ugutz Ezkurdiak (Deustua, 1972) abenduan kaleratutako *Leihotik begira* bakarkako diska. Itxialdian izandako hainbat hausnarketatik sortutako lana dela azaldu du: "leihotik kanpora zein barrura begiratzen nuen bitartean etorri zitzaidan hasierako ideia eta hortik abiatuta guztira sei abestiz osatutako lana aurkeztu dut oraingoan". Lan "xumea" den arren, izandako harrerarekin eskertuta dago guztiz, kantetako letrak askoren barrunbetaraino heldu baitira eta kantautorearen arabera, hori da musika egitearen gauzarik hunkigarriena "entzuleengan hausnarketa bizia eragitea, hots, nire ideiekin jendearengana heltzea".

Gaua Produkzioak estudioan egin du diskoaren ekoizpena eta grabaketa guztia, bertako Aitor Abio eta Iker Villarekin batera. Halaber, diskoaren aurrelanketari behar den denbora eskaini dio kantautoreak "kontzertuetan adierazten dudana diskan islatu nahi nuelako, aldaketa askorik gabe, eta horrek nolabait prozesua luzatzea ekarri du". Leihotik begira lana abenduaren 30ean aurkeztu zuen Galdakaon eta bigarren emanaldia martxoaren 24an Berbaizu Euskara Elkartean eskaini zuen. Datozen hilabeteetan beste hainbat emanaldi iragarriko dituela adierazi du Jonuk.

Musika munduan txikitatik murgilduta egon den arren, 2000. urtean hasi zen bakarlari gisa kontzertuak ematen herrietako jai, gaztetxe eta aretoetan. Hala eta guztiz ere, aurretik ere musika talde ezberdinetan ibilitakoa zen. Bi hamarkada hauetan bakarlari gisa ibili denean, helburuak berdintsu mantendu dituela adierazi du: "neure ideiak musikaren bidez adierazi eta aldi berean, egiten dudan horretaz gozatzea". Gaur egun, bakarka ibiltzez gain, bere "alderik basatiena" ateratzeko parada ematen dion Koiu talde galdakaoztarreko abeslaria eta gitarra jotzailea ere bada.

Dagoeneko Spotify musika plataforman bere azken diska entzungai dago eta gainera, jonukantautorea.wixsite.com/jonu/musica helbidean bere ibilbidea hobeto ezagutzeko aukera izateaz gain, orain arte bakarlari bezala kaleratutako lan guztiak ere entzun daitezke.

## Abian da Gaztezulo Bideo lehiaketaren XIII.edizioa

Bideoak apirilaren 4tik maiatzaren 20ra bitartean aurkeztu ahalko dira. Lanen ezaugarri teknikoei dagokionez, hainbat dira kontuan hartu beharrekoak: Bideoak aurten filmatutakoak izan behar dira eta argitaratu gabeak izan behar dute. Halaber, gutxienez minutu bateko eta gehienez 3 minutuko iraupena izan behar du lanak. Gaztezulo paperezko aldizkaria, aldizkari digitala edota gaztezulo.eus webgunea azaldu behar dira nahitaez bideoan eta hizkuntza edukiren bat izatekotan euskarazkoa beharko du izan. Epaimahaia Olaia Urtiaga kazetariak, Ibai Zabala ikus-entzunezko teknikariak eta Marga Berra grafistak osatuko dute. Guztira 3 sari banatuko dira ekainean egingo den sari banaketan: lehenengo saria bideo onenaren egileentzako izango da, eta 1200€ euroko saria jasoko dute, bigarren saria berriz 300€koa izango da. Ikusleen bozka gehien dituen lanaren egileak "ikusleen saria" jasoko du, eta produktu ezberdinez eta Gaztezulo materialez osatutako opari-sorta irabaziko du.

## Wikitribia jolasa euskaratu du Talaiosek




Euskarazko wikipediako hainbat eduki kronologikoki ordenatzea edota kronogramak egitea du helburu Talaios enpresak euskaratutako jolas berriak. Worlde jolasean ez bezala, Wikitribiak partida ezberdin bat eskaintzen du webgunea bisitatzen den bakoitzean. Hasieran bi elementu ageri dira eta jokalariak kronologikoki ordenatu beharko ditu. Oraingoan okerrak kontuan hartzen dira, hiru bizitza baititu jokalariak jolasa gainditzeko.



>> HEDABIDEAK

# “EUSKAL KOMUNIKABIDEOK ELKARLANEAN ARITU BEHAR GARA DATORRENARI AURRE EGITEKO”

*Euskal Hedabideen Behategiak argitaratu berri duen urtekariaren editore eta koordinatzailea izan da Hibai Castro Libe Mimenzarekin batera. Digitala den hodeiertzari begiratzeko tresna baliagarria izan nahi du. Baita galdera, erronka zein aukera berriei heltzeko. Egungo egoerak eskatzen duen eraldaketari erantzuteko, herri gisa estrategia bat behar dugula azpimarratu dute.*

**Testua:** Nerea Olaziregi

**Urtekaria hedabideen ostertza marrazten laguntzeko tresna bat izan nahi duela esan duzue. Zer topatuko du irakurleak bertan?**

Hamalau artikulu bildu ditugu hogeita bat egileen eskutik. Hedabideen sektoreak berak lehen pertsonan idatzitakoak, unibertsitateetan egindako hainbat ikerketa eta hausnarketarako irekitako leihoak. Aurtengoa Behatokiak argitaratzen duen 7.urtekaria da eta aurrekoekin batera, webgunean jarri dugu edonoren eskura. Egia esateko, urtekaria kontzeptua gainditzen duen argitalpena da. Izenak murrizten du bere izana.

**Aurten atal berri bat estreinatu du Joseba Sarrionandia idazleak. “Nazioa komunikazio espazio moduan” izenburua jarri dio. Posiblea da herri mailako komunikazio esparru bat sortzea naziorik gabe?**

Gaur-gaurkoz lehenengo geltokia bai uste dut dela Estatua baina maila globalean sortzen ari diren euskarri eta plataforma berriek gainditzen dute Estatuaren egitura hori. Horregatik agian ezin gara itsutu behar Estatu egitura horrekin eta eduki behar dugu presente nazio eraikitzea egitetik bertatik, bizitzetik. Herri gisa pentsatu behar dugu. Gogoetarako duen erraztasun horrekin, ur sakonetan sartzen da Sarrionandia bere saiakeran baina nik uste dut pixka bat hortik doala.

**Argitalpenaren sarreran aipatu duzu euskal hedabideetan aukerak zabaltzen ari direla laino artetik ostertza agertzen ari den bitartean. Zeintzuk dira ikusten dituzun lainoak?**

Digitalizazio prozesua azkartu da, pandemia garaian bereziki eta hedabideak erritmo horretara egokitu behar dira, bestela atzean geratzeko arriskua dago. Hori nabarmen ikusten da ikus entzunezko munduan. Plataforma digitalak, Netflix, Amazon Prime eta Disney bereziki, nagusitzen ari dira. Datu guztiek esaten dute oso modu bizkorrean ari direla erabiltzaileak igotzen, baita Euskal Herrian ere. Horren harira, Garazi Goiaren hitzaldi baten laburpena agertzen da urtekarian, bertan Europatik Euskal Herrira datozen joeren aurrean, herri gisa estrategia bat behar dugula azpimarratzen du Goiak. Eta berehala behar dugu. Olatu handia dator eta ezin gaitu harrapatu.

P6
PABELLÓN 6 ARTE BIZKOKOA
AQUEL LUGAR DE NUESTRA INFANCIA

**AQUEL LUGAR DE NUESTRA INFANCIA**
maiatzaren 6tik 29ra
*Dramaturgia eta zuzendaritza* ANA GARCÍA PEÑA
*Antzezleak* NEREA ELIZALDE, SANDRA MARTÍN GÓMEZ, KEPA ALESSO, ANA OTSOA SAN JUAN, ALBAR CIRARDA, ANA GARCÍA
www.pabellon6.org

**Eta aukerak?**

Gaur egungo egoerak eraldaketa eskatzen du. Teknologia tresna bat da eta gure alde erabili behar dugu. Ematen diozun erabilera, helburu eta irizpideen arabera berrikuntzarako aukera handia izan daiteke. Ikuspegi bateratu bat behar dugu erronka potolo horiei aurre egiteko. Elkarlanerako gogoa ezinbestekoa da. Korrikan ikusi berri dugu euskal hedabideek zelako lana egin duten batera. Agian hori izan daiteke bidea.

**Baldintza egokietan daude euskal hedabideak erronka horiei heltzeko?**

Ez dut uste gai naizenik holako galderari erantzuteko baina nire ezagutza urritik alde biak ikusten ditut. Alde batetik, komunikazioaren ekosistema oso aberatsa dugu. Aniztasun handia dugu. Denetariko euskarri eta hedabideak ditugu eta elkarlanean aritzeko aukera aprobetxatu behar dugu. Oreka bat bilatzen saiatu beharko ginateke. Elkarlana bera ere ondo egitea erronka bat da eta asmatu behar da horretan.

**Urtekaria ixteko Hego Euskal Herriko kazetaritza feministari buruzko lan bat aukeratu duzue.**

Bai, EHUko Emakumeen ikusgaitasuna hedabideetan Ikerketa Taldeak egindako lana da. Azken hamarkadetan  sortu diren izaera anitzeko komunikazio-produktu feministak zerrendatu eta deskribatu dituzte: fanzineak, irratsaioak, artikuluak, ikus-entzunezkoak... Behategian lan hau baliatu dugu euskarazko komunikazio-produktu feministen datu-basea eraikitzeko eta hemendik aurrera osatzen joan ahal izango garen direktorioa sareratzeko.

**Ikus entzunezkoen munduan ibili zara orain arte Euskal Herriko gai sozial eta politikoak jorratzen. Bateragarria da orain Behatokian duzun ardurarekin?**

Urte erdi daramat Behatokian eta egia esan, dedikazio handia eskatzen dit. Aukera hau sortu zait eta probatu nahi izan dut eremu berri hau. Duela gutxi Udalbiltzaren “Geuretik sortuak” ekimenaren barruan pelikula kolektibo bat egin berri dut “Bost teilatu” izenekoa baina hemendik aurrera zailagoa izango da arlo biak uztartzea. Azkenean proiektuak hasi eta bukatzen dira.

**Gustura zaude lan berrian?**

Bai, asko ikasten ari naiz. Gauza batzuk erabat berriak dira niretzat eta horrek arreta berezia eskatzen du. Oso lan talde fina da. Ni ez nator mundu akademikotik baina nolabait esparrua ezaguna egiten zait eta helburu berberak ditugu. Euskarazko komunikazioa sendotzea eta arlo horretan urratsak ematea.

**Zeintzuk dira orain Behatokian esku artean dituzuen egitasmoak?**

Udako ikastaroen barnean audientzia digitalen ikastaro bat antolatzen ari gara. Oso beharrezkoa da gaur egun audientziak ezagutzea eta hedabideek egitea aldaketa prozesu bat horri egokitzeko eta horretarako datuak behar dira. Gaur egun dagoen sistema oso mugatua da. Jarraitzen dugu zenbat klik ditugun neurtzen baina gaur egun trafikoak askoz anitzagoak dira. Gaur egun gehienetan, irakurlea ez doa hedabidearen web gunera zuzenean, informazioa sare sozialen bitartez heltzen zaio.Matematikariekin elkarlanean, audientziak aztertzeko sistema bat garatzen ari gara. Bestaldetik, euskarazko hedabideen datutegia eguneratzen eta osatzen segitzen dugu.

# PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

# Txangurrozko Causa

*Peruko osagaiei, zaporeei, teknikari eta tradizioaren eta modernitatearen arteko orekari atxikitutako sukaldaritza du oinarri abenduan zabaldutako Waman jatetxeak.*

**Prezioa:** 20€

**Berezitasuna:** Txangurruaren gainean erortzen diren 3 koloretako jakiak

**Kontu batzuk**

Urte askoren ostean, abenduaren 23an lortu zuen Gabriel Hamánek bere ametsa egi bilakatzea. Duela 7 urte bere familiak janari perutarrean oinarritutako jatetxea zabaldu zuen Heliodoro de la Torre kalean, Rocotto izenekoa. Orain, bere txanda heldu da eta Madariaga Etorbideko 5. zenbakian Waman izeneko jatetxea jarri du abian, euskal zein perutar produktuen arteko fusioari bidea emanez. Artxandako goi mailako ostalaritza eskolan ikasteaz gain, urtebete eman du Eneko Atxarekin Azurmendi jatetxean lanean. Azken urteetan ikasitako guztia praktikan jartzera datorrela azaldu digu.

**WAMAN**

Madariaga Etorbidea, 5

Asteartetik ostegunera:
13:00–16:00, 19:30–22:30
Ostiral eta larunbatetan:
13:30–16:00, 19:30–23:00
Igandeetan: 13:00–16:00

## barkua bete herba

**Zelan egin?**

Kausa Alimeña sukaldaritza perutarrean oso ohikoa den platera da. Oilasko, barazki eta maionesaz egindako betegarria da hain zuzen. Fusioari jarraiki, Gabrielek txangurruzko kausa ondu du oraingoan.

## OSAGAIAK

*Txangurru mamia*
*Otarrainxka eskabetxe zitrikoan*
*Ahuakatea*
*Galeper - arrautza*
*Olibak*


**Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!**
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

*AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN*

# kultur txotx

*Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa*

**ANTXON AGIRRE**
*Gaztea eta Kulturzalea*

## Datorren urtera arte, Loraldia

Udaberriaren lehen taupadek Bilbon, xarma berezia daukate. Euskal kultur garaikidearen doinura sendo gorpuzten dira liliak hirian. Loraldia festibalak 8. edizioa burutu du "Hautsi zen anphora!" lemapean. Teatroa, dantza, musika, literatura… hainbat sormen desberdin ikusteko aukera eman digu. Biziki deigarriak iruditu zaizkidan hiru emanaldi azpimarratuko dizkizuet.

Batetik, "Satiro" performanceak, sexu-instintu gordinenak irudikatu zituen. Erdi animalia erdi gizakia den pertsonaia lizun, zantar eta haragizkoak, desira eta fantasiak umoretik azalarazi zizkigun. Haragi festa aldarrikatu zuen, kaiola barnean kateaturik zegoen bitartean.

Bestetik, "Mira-Hadi" Eulalia Abaitua argazkilari bilbotarraren lana, oholtza gainean ikusteko aukera izan dugu. Antzezlana argazkien proiekzioekin eta zuzeneko musikarekin tartekatuta dago. Horrek, aurreko mendeetako andre-begietan murgildu gintuen.

Amaitzeko, gau ahaztezina izan zen Kafe Antzokian bizitako "Muguruza Mani-Fest" kontzertua. Bide anitza eta iraultzailea egin duen euskal musikaren erreferentea den Fermin Muguruza jarri zuten ikusmiran Juantxo Arakamak, La Basuk eta Ion Celestinoren taldeek. Kortatu, Negu gorriak eta Fermin Muguruza izenekin plazaratutako kantuak gogora ekarriz, musikaren alde egin genuen topa.

Ez dadila haria eten. Datorren urtera arte, Loraldia.

**IXONE ARRIZABALAGA ARAMBARRI**
*Elorri bertso-eskolako kidea*

*Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz*

Hamazortzi urte justu beteak
joan nintzen ni Gasteizera,
hamalau urte bertan pasata
ia-ia patatera,
baina zoriak nahi zuela ta
Deusturaino bizitzera,
ta aste pare batera
ezustekoa parera,
nire begiak iltzatu ziren
Berbaizuren kartelera:
anima zaitez bertso-eskolako
gure idatzizko taldera.

Idatzi orduko esan zidaten
hastear zirela jada,
zita jarrita zutela eta
agertu nintzen bertara,
eta gainera berri bakarra
ere ez nintzen ni, hara!
ta ordutik bertsotara
deustuar onen gisara
adin, jatorri ta esperientzi
nahasketa eder hortara
milesker talde, hau zuengandik
edateko aukera da.

Mondragon Unibertsitatea

# Gure ikasleen ahotan

## *“Gehien gustatzen zaidana irakasleek ikasleari ematen dioten arreta da.”*

*Adrián Salomón Manterola (22 urte, Muskiz) Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza Mekatronikoa Graduko hirugarren maila egiten ari da Bilbao AS Fabriken.*

**Non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu zaletasunik?**

CF Somorrostron batxilergo teknologikoa ohorezko matrikularekin amaitzean, formatu dualeko Mekatronika Industrialeko goi-mailako zikloa egin nuen ikastetxe berean. Nire zaletasunak dira txirrindularitza, mendia eta lagunekin egotea.

**Zergatik aukeratu zenuen gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Egin nuen goi mailako zikloa adar berekoa zen eta hau asko gustatu zitzaidan. Nire asmoak ez ziren unibertsitatera joatekoak, baina Mondragon Unibertsitatean sartzeko proba egin nuen, goi-mailako ikasleei zuzendutako hitzaldien ondoren. Horietan aukera ona zela adierazi ziguten, goi-mailako ikasketak egiteagatik urte oso bat baliozkotzen zelako.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Orain arteko esperientzia oso ona izan da. Lehenengo mailan, irakasgaiak enborrekoak dira. Hori dela eta, goi- mailako ikasketak egiten ditugunok gogoan izan behar ditugu matematikako, fisikako eta abarretako zenbait kontzeptu, baina berehala berreskuratzen dira errefortzu-klaseak emanez. Hirugarren mailan, irakasgaiak teknikoagoak dira.

**Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Gustuko dut. Seihilekoaren lehen hilabeteetan teoria ematen da eta partzialak egiten dira. Ondoren, PBLrekin (Project Based Learning) hasiko gara, irakasgai guztiak jorratzen dituen erronka. Aldi horretan, asko ikasten da eta lotura handi bat sortzen da taldean.

**Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Gehien gustatzen zaidana irakasleek ikasleari ematen dioten arreta da. Beti daude gure eskura, eta errefortzu-klaseak ematen dituzte beharrezkoak direnean.

**Lanean ari zara ikasten duzuen bitartean, Dual ereduan. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?**

Praktikak IDOM Consulting, Engineering, Architecture enpresan egiten ari naiz, Analisi eta Diseinu Aurreratuaren sailean. Nire praktikak proiektu baten barruan bideratzen ari dira, diseinu mekanikoa, elektrikoa, opto-mekanikoa, dokumentazioa eta muntaketa lanak egiten ditugu.

**Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?**

Formatu dualak lan- edo industria-mundua hurbilagotik ezagutzen laguntzen digu. Lan-irteera handiko gradua denez, gutako bakoitza praktikak egiten ari da era askotako enpresetan. Nire kasuan, giltza eskura duten industria-proiektuak nola kudeatzen diren bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen dit baita lan-taldeen eta egin beharreko lanen kudeaketa, hornitzaileekiko komunikazioa eta proiektu beraren muntaketa.

www.bilbaoeuskaraz.eus

# ARANGOITIKO EUSKAL JAIA

2022ko APIRILAREN 30ETIK MAIATZAREN 8RA

Ahoa bete hitz
Bihotza bete poz

ARANGOITIKO EUSKARAZ
BIHOTZAREN AUZO ELKARTEA
TXILDER
ARANGOITIKO BATZOKIA
B Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO